

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2023ko errolda egin da, eta jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, interesa dutenek errolda hori aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ahal izateko.

Kobratze aldia

2023ko apirilaren 24tik 2023ko ekainaren 26ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, dagozkion ordainagiriak.

2023ko TMIZn aplikatu daitezkeen hobariak eskatzeko epea

2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) eskatu ahal izango dira, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duten ordenantzetan adierazitako agiri guztiak aurkeztuta.

Ordaintzeko modua

1. Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Iruña Okako Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa zergadunak adierazitako kontu korrontean, 2023ko ekainaren 21ean (ez du bidaliko ordainagiririk).

2. Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainagiria bidaliko da):

Zergaren zenbatekoa udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango da, astelehenetik ostiralera, jendaurreko ordutegian 10:00etatik 13:00etara, edo ordainketa gutunean adierazitako banku kontuetarako banku transferentziaren bidez.

2023ko ekainaren 27tik aurrera, ordainagiriak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobratzeko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Okan, 2023ko otsailaren 16an

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ